

EKITALDIAK-EVENTOS / SIDRA-SAGARDOA

2012 SAGARDO EGUNAK. Euskal Herriko sagardo dastaketen egutegia.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 04/04/2011 · 9:46

5 Comentarios



Udaberria iritsi ahal, eguraldia hobetzearekin eta eguna luzatzearekin batera, urtero bezala, sagardoa herriko festa eta ekitaldietan izango dugu, Euskal Herri osoan ohitura bilakatu baita. Beraz, edari natural eta freskagarri honek protagonismoa hartuko du bolada berri honetan.

Txotx denboraldia, beraz, kanpaina honetako botilako sagardoa dastatzeko aukerarekin osatzen da, produktua bere heldutasunera iritsi baita eta urteroko ezaugarri bereziekin, aho sabairik finenak gozatzeko modukoa dago.

Sagardoetxeak sagardoa dastatzeko aukera berezia eskaintzen dizu, sagardogile ospetsuenen sagardo dastaketarekin, **Euskal Herrian herri-herri egingo diren ekitaldietan** sagardoa izango baita. Honakoak dira:

- **Apirilak 27: Oreretako XIV. Sagardo Eguna.** Euskal Herriko hainbat sagardo dastatzea. Sagar bilketaren eta aintzinako sagardogintzaren erakustaldia. Antolatzaileak: Errenteriako hainbat elkarte.
- **Maiatzak 12: Irungo Sagardo Eguna.** 20 sagardogileren sagardo dastaketa. Antolatzaileak: 12 elkarte gastronomiko eta Taupadak GKE.
- **Maiatzak 15: San Isidro eguneko nekazaritza azoka Ataunen.** Sagardo Dastaketa. Antolatzailea: Ataungo Udala.
- **Maiatzak 20: Nekazaritza azoka Azkoitia.** Sagardo dastaketa. Antolatzailea: Azkoitiako Udala.
- **Maiatzak 20: Usurbilgo Sagardo Eguna** ospatuko da, 1981ean hasitako bideari jarraituz. Egiten diren sagardo egunen artean garrantzitsuenetakoa da. 44 sagardotegitako sagardoa dastatzea eta sagardo botatzaileren lehiaketa. Antolatzailea: "Sagardo Egunaren Lagunak Taldea".
- **Maiatzak 26: Lezoko Sagardo Eguna.** XIV. Sagardo dastaketa eta lehiaketa. Antolatzailea: "Tiñelu" elkarte.
- **Maiatzak 26: Oiartzungo Sagardo Eguna.** Sagardo dastaketa eta XXIII. Sagardo lehiaketa. Antolatzailea: "AEK Intxixu".
- **Ekainak 2: Gipuzkoako sagardogileen sagardorik onenek Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sariak XI. Sagardo Lehiaketan** parte hartuko dute, Donostiako Gastronomiako Euskal Anaiartean.
- **Ekainak 2: Pasai Antxoko XIX. Sagardo Eguna.** Sagardo dastatzea. Bertsolari, txalapartari eta txarangek azoka alaituko dute. Antolatzailea: "Alkartasuna Dantza Taldea".
- **Ekainak 30: Orioko Sagardo Eguna.** Sagardo dastaketa.
- **Uztailak 25: Santio Egunean Azpeitian Baserritarraren Eguna** ospatzen da. Herriko plaza Nagusian eskualdeko ganaduaren azoka ospatzen da eta sagardo eta gazta lehiaketa egiten da.
- **Uztailak 26: Santa Ana** eguna izango da Astigarragan, eta bertan, Sagardo Eguna ospatuko da, egiten diren sagardo egunetan zaharrena dena. Sagar erakusketa eta sagardo dastaketa. Eskulanen erakusketa. Herri kirolak. Antolatzaileak: Sagardoetxea eta Goldea Taldea.
- **Abuztuak 10: Nekazaritza azoka Zumaian.** Sagardo dastaketa. Antolatzailea: Zumaia Udala.
- **Abuztuak 12-18: I. Sagardo Azoka** Donostiako Gros auzoko Katalunia plazan, Aste Nagusiko egitarauaren barruan. Antolatzailea: Sagardo Mahaia.
- **Abuztuak 24: Baserritarraren eguna Laudion.** Txakolina eta sagardoa dastatzea. Antolatzaileak: Kilkerrak Taldea eta ARATE.
- **Abuztuak 25: Elgoibarren Nekazaritza eta Abeltzantza azoka** ospatzen da eta bertan, *sagardo lehiaketa* ospatuko da. Antolatzailea: Elgoibarko Udala.
- **Abuztuak 26: Ergobiako Sagardo Lehiaketa** ospatzen da.

Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

RSS Feed
Twitter
Facebook

Buscar / Bilatu

Categorías

Azokak-Ferías
Besteak-Otros
Ekitaldiak-Eventos
Esperientziak-Experiencias
Formazioa-Formación
Gastronomia-Gastronomía
Historia-Historia
Kultura-Cultura
Lehiaketak-Concursos
Museos-Museoak
Sagarra-Manzana
Sagastia-Manzanal
Sidra-Sagardoa
Sidrerías-Sagardotegiak
Turismoa-Turismo

Post Recientes



Otsua-enea
sagardotegiaren 25.
urteurrena.



Sagardoaren Eguna
Leitzan ekainaren 7 eta
8an.



XX. Sagardo Jaia ospatuko
da Pasai Antxon ekainaren
1ean.



XII. Sagardo Lehiaketa.
Gipuzkoako Foru
Aldundiaren Sariak.

- **Irailak 1:** *Donostiako Sagardo Eguna* ospatuko da Euskal Jaiei barruan. 50 sagardoegile baino gehiago. Antolatzaileak: Gipuzkoako Sagardogileen Elkarte eta Donostia Kultura.
- **Irailak 1:** *Untxia eta Bizkaiko Sagardoaren Eguna*. Untxia dastatzeko aukera eta sagardo dastaketa. Antolatzailea: Gernika-Lumoko Udala.
- **Irailak 8:** Ordiziako Sagardo Eguna. 11 sagardogileen sagardoak dastatzelp aukera. Antolatzaileak: Gipuzkoako Sagardogileen Elkarte eta Ordiziako Udala.
- **Irailak 16:** *Sagar eta sagardo festa Hernanin*. "Zizarra" edo sagardo gozoa eta tokiko sagardoa dastatzeko aukera. Sagar barietateen erakusketa, sagar bilketaren erakustaldia eta Dolareko aintzinako tresnen erakusketa. Antolatzailea: "Tolarea" Kofradia.
- **Irailak 19:** *Kizkia Taldearen Sagardo Lehiaketa* ospatzen da Astigarragan.
- **Irailak 22:** *Irurako Sagardo Dastaketa* egingo da, 12 sagardotegietako sagardoa eta 4 elikagai ezberdinekin eginiko pintxoak dastatzeko aukera izango delarik. Antolatzailea: Irurako Udala.
- **Irailak 30:** *Sagar Uzta Astigarragan*. Sagardogintza prozesuaren erakustaldia. Sagarrari lotutako produktuen erakusketa eta salmenta. Sagarrak, sagardoa eta muztioa dastatzea. Antolatzailea: Sagardoetxea.
- **Irailak 30:** *Nekazaritza azoka Bidegoian-en*. Sardinen, sagardoaren eta txakolinaren herri dastaketa. Antolatzailea: Bidegoiango Udala.
- **Urriak 6:** *Eibarko Sagardo Eguna* antolatzen du. Sagardo dastaketa. Antolatzailea: Eta Kitto! Elkarte.
- **Urriak 6:** Abeltzaintza eta nekazaritza azoka Oñatin. *Sagardo dastatzea*. Antolatzailea: Oñatiko Udala eta Baserritar Elkarte.
- **Urriak 6:** *Sagardo Eguna Abanto Zierbenan*. Sagarren bidez sagardoa nola egiten den ikusteko erakustaldia. Kirikoketa. Antolatzaileak: meatzaldeko Harrigorria D.T. eta Abanto Zierbenako Udala.
- **Urriak 10-19:** Igartubeiti Baserri Museoko *Sagardoaren Astea* ospatzen da Ezkio-ltsason. Tolarearen martxajartzea, sagardoaren elaborazio prozesua, dastaketa, Kortabarria familiaren antzezlanak eta sagar erakusketa ikusgai izango dira.
- **Urriak 20:** *Kirikoketa Besta* ospatzen da Arizkun. Bertan sagardoa tolare zaharrean egiten dute eta sagar muztioa dastatzen da. Antolatzailea: Jo ala Jo Taldea.
- **Urriak 21:** *Sagarren Festa* ospatzen da Hendaian.
- **Azaroak 10:** *Nekazaritza azoka Ermuan*. Fruta eta barazki, gazta, ezti, ogi, sagardo eta txakolin onenarentzako lehiaketa. Antolatzailea: Euskal Birusa Elkartea Kulturala.
- **Azaroak 18:** *Errezil Sagar azoka Gabirian*. Errege sagarren lehiaketa eta salmenta. Antolatzailea: Gabiriako Udala eta "Erbie" Elkarte.
- **Abenduak 26:** Gabonetako azoka Ordizian. *Errezilgo hereje sagarraren lehiaketa*. Antolatzailea: Ordiziako Udala.
- **Abenduak 26:** Zestoako IX. *Gazta eta Sagardoaren Lehiaketa* ospatzen da. Antolatzailea: Zestoako Udala.

Tags: calendario, degustación de sidra, Euskal Herria, Sagardo Egunak, sagardoa



Sagardoaren munduko bitxikeriak: Maria Josefa de Larramendi, gizonen munduko emakume asaldatzaila.

Comentarios recientes

Sagardoaren Lurraldea en "Baserri munduko memoria" sagastiko lan ezberdinen eskutik Sagardoetxean.

Sagardoaren Lurraldea en Lezon Sagardo Eguna ospatuko da larunbat honetan.

Xabier en **Lezon Sagardo Eguna ospatuko da larunbat honetan.**

Xabier en **"Baserri munduko memoria" sagastiko lan ezberdinen eskutik Sagardoetxean.**

Goretti en **"Sagastiak loretan" ARGAZKI LEHIAKETA Facebook-en.**

Anterior post
Nuevo Boletín de Sagardoetxea
(Nº22).Sagardoetxeako Boletín berria (22 zkia).

Siguiente post
Aromas de la sagardoa.

omentarios



AMAIA says:
M j, Y

Falta el sagardo eguna de Irún. Suele ser el segundo sábado de mayo, así que si mis cálculos no fallan debería de ser el 12 de mayo.

Responder



LEIRE says:
M j, Y

Gracias Amaia!

Responder



ARA says:
M j, Y

FALTA EL DE SESTAO Q CREO Q ES ESTE SABADO 2 DE JUNIO

Responder



LEIRE says:
M j, Y

Muchas gracias por la información.

Responder



TXOTX says:
M j, Y

Responder

Quiero expresar mi desacuerdo con los organizadores de algunos sagardos eguna y fiestas similares (txakoli, talo eguna,...) el pasado fin de semana en una zona como es Oarsoalde se han celebrado tres acontecimientos muy similares En Oiartzun Sagardo eguna, en Lezo Sagardo eguna y en Orereta Talo y Ardo eguna. Este fin de semana en Pasaia Sagardo eguna y en Oiartzun Txakoli eguna. ESTO ES DEBE A UNA FALTA DE DE COORDINACION. Pido a quien corresponda (ayuntamientos, organizadores,...) que intenten coordinarse y ponerse de acuerdo. Esta forma de funcionar es perjudicial para todos.

Tu comentario / Zure komentarioa

Nombre *requerido*

Email *requerido*

Web

Enviar